



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 23a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko, gure erkidegoaren errealitatera egokitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Europako erakundeak premiatzen dira bertan behera utz ditzaten afganiar migra-tzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia erai-kiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten administrazio-kontratudunei eta aldi baterako lan-kontratudunei dagokienez. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari”.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea,
zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari**

HITZAURREA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 26.1. artikuluan xedatzen duenez, “Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan”.

Foru lege bereko 24.2. artikulua ezartzen duenez, “hasieran eskatutako txostena edo dokumentazioa ez dutela bidaliko edo eskura jarriko esaten badute Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek edo haien gainekoek, edo arduragabekiaz jarduten badute, Nafarroako Foru Komuni-

tateko arartekoak uste ahal izanen du bere eginkizunen kontrakoak edo oztopatzekoak direla egin-tza horiek; hori ezagutarazi egingen du berehalakoan, eta Nafarroako Parlamentuarentzat egindako urteko txostenean edo txosten berezian, halakorik bada, kalifikazio hori nabarmendu egingen du”.

24.3. artikulua hau gehitzen du: “Gauza bera gertatuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduna eragotzi edo oztopatzen duen edozein jokabiderekina”.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Lege beraren 31.1. artikuluan antzeko baldintzak adierazten dira: “Administrazio Publikoetako zerbitzuko edozein organismok edo pertsonak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikerketei kontra edo oztopo egiteari eusten badio, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gain”.

Lege horretako 31.2. artikulua arabera, “horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere ebazpenak ez betetzeari eusten diotenak edo bere jardura oztopatzen dutenak nor diren esan ahalko du, guztiaren berri eman ondoren erantzule den agintari gorenari”.

Bestalde, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 34.2. artikuluan xedatzen duenez, “behin gomen-dioak egin ondoren, ukitutako agintari administrazioak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan, edo Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoiak berri, arartekoak gai horren aurrekariak eta aurreztutako gomendioak, oharpenak, gogorarazpenak edo iradokizunak jakinarazi ahal izanen dizkio ukitutako administrazioaren agintari gorenari. Hala jokatura ere justifikazio egokia lortzen ez badu, gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarra hori izan duten agintarien edo Administrazio

Publikoen zerbitzuko langileen izenen berariazko aipamenarekin, eta betiere arartekoaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean”.

Nafarroako arartekoarekin lankidetzan ez ari-tzeak jarduketak Fiskaltzari helaraztea eragin dezake, Zigor Kodeko 502.2. artikuluan tipifikatu-tako delitua jazo ote den baloratzeko.

Manu horrek ondokoa xedatzen du:

“1. Norbaitzuk, agindeia legez eta ohartarazpe-na eginda jaso dutelarik, agertzen ez badira Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebil-tzarraren ikerketa batzordera, orduan, halakoak desobeditze-delitupeko erruztatu gisa zigortuko dira. Erruztatua agintari edo funtzionario publikoa bada, horri enplegu edo kargualdi publikoa etengo zaio, sei hilabetetik bi urte arte.

2. Agintari edo funtzionarioari zigor berberak ezarriko zaizkio, baldin eta Herriaren Defen-tsariaren, Kontu Auzitegiaren edo autonomia erki-degoen organo baliokideen ikerketa oztopatzen badu, nahiz horiek eskatutako txostenak bidal-tzeari uko eginez edo bidaltze hori bidegabe luza-tuz, nahiz horiei trabak jarriz, ikerketa egiteko beharrezkoak diren administrazio-espeditente nahiz agiriak eskuratzeko.

Nafarroako arartekoaren ondoz ondoko urteko txostenek agerian jarri dute, zenbait administrazio publikok ez dutela lankidetzan jarduten herritarren eskubideak administrazio publikoen gehiegikerien eta zabarkeriaren aurrean bermatzen dituen era-kunde horrekin, eta, halaber, lankidetzaz ez hori behin eta berriz gertatzen dela eta gorantz ere egin duela. Batzuetan, administrazio horiek ordezkatzan dituzten agintariek ez dakite zer eran-tzukizun izan ditzaketen; izan ere, haien zerbitzura dauden beste pertsona batzuk dira lege-betebeha-rra ez betetzearen errudunak.

Erakundeak jardunean daraman urteetan har-tutako esperientziak erakutsi du gaur egun inda-rran dauden neurriak –lankidetzarik ezaren adie-razpena eta urteko txostenetan administrazio horien aipamena egitea– ez direla nahikoak lankidetzaz ezari aurre egiteko. Era berean, age-rian utzi du bide penala ez dela metodo egokia, desproporzionatua delako eta zuzenbidearen

azken ratioa delako, organo edo entitate adminis-tratiboek Nafarroako arartekoarekin lankidetzan aritzeko betebeharra behar bezala betetzen ez duten kasuei aurre egiteko.

Horregatik, neurri horien eraginkortasuna txikia izan denez, oso egokitzat jotzen da uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen esparruan neurri eraginkor eta proportzionatu bat ezartzea, alegia, aukera egon dadila Nafarroako arartekoak berak her-tsapen-neurriak ezartzeko zenbateko nahikoa eta egokia duten isun periodikoen bidez, behin eta berriz egindako errekerimenduak gorabehera, eskatutako informazioa edo dokumentazioa bidal-tzen ez duten edo beren ebazpenei erantzuten ez dieten herri-administrazioei, zeinek, hala jokatzuz, kaltetu egiten baitute herritarren eskubideak zain-tzeko sortu zen erakunde horrek betetzen duen gainbegiratze-funtzioa.

Artikulu bakarra.

29. bis artikulua gehitzen zaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari, honako testu honekin:

“29. bis artikulua.

Administrazio publiko edo entitate batek ez badu eskatutako informazio edo dokumentazio guztia edo haren zati bat bidaltzen, edo ebazpenei ezarritako epean erantzuten ez badie, Nafarroako arartekoak, hamar eguneko epean azken oharta-razpena egin ondoren, honako neurri hauetako edozein hartu ahal izanen du:

a) Administrazio edo entitate erantzuleei 1.500 euroko hertsapen-isunak jartzea. Isuna hogeit egu-nean behin errepikatu ahal izanen du, harik eta eskatutakoa osorik bete arte.

b) Administrazio edo entitate erantzuleen jarre-ra, eskatutakoa ez betetzearena, argitara ematea web orrian, urteko txostenean edo txosten berezi batean, eta hedabideetan, eta jokabide hori Nafa-rrakoako Parlamentuari jakinaraztea, horren berri izan dezan”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta biharamunean hartuko du inda-rra.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

**Lege proposamena, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea,
1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena.**

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 16an, erabaki du aintzat ez hartzea indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duen Lege proposamena, zeina José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu baitzuen eta 2021eko

ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 16an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plan-

tari”. Mozioa José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko irailaren 14ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ukitutako departamentuek egin daitezkeen eta beharrezkoak diren zuzemen guztiak egin ditzaten, Estellerriko Merindadean hain beharrezkoak diren eta hainbestetan eskatu diren azpiegitura elektrikoak ezartzearren REE planifikatutako lanak albait lasterren egitera bideratutako administrazio-izapideak nahiz txosten eta diligentzien epeak azkartzeko eta murrizteko”.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko, gure erkidegoaren errealitatera egokitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko, gure erkidegoaren errealitatera egokitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko, gure erkidegoaren errealitatera egokitzeko, halako moduz non ahalik eta onuradun gehienengana iritsiko den, COVID-19aren pandemiak sortutako krisiak gogor zigortu dituen sektore horietan”.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Europako erakundeak premiatzen dira bertan behera utz ditzaten afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Europako erakundeak premiatzen dira bertan behera utz ditzaten afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu bertan behera utz ditzaten afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa eta Afganistanerako deportazioak.

2. Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu korridore humanitario bat ezar dezaten Afganistandik atera nahi duten asilo-eskatzaileentzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Europako Parlamentuan

jardun dezan, korridore humanitario bat ezartzeko Afganistandik atera nahi duten asilo-eskatzaileentzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz taxutu dezan harrera-plan bat eta udalei eska diezaien babes-hiri deklaratzeko, aberriratutakoak eta exiliatuak hartze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du protokolo berezi bat ezar dezan egoera horretan diren emakume eta adingabeentzat, haien beharrianak betetzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du abian jar dezan 2001/55/EE Zuzentaraua, lekualdatutako pertsona ugari etorri gero aldi baterako babesa emateko arauari eta Europar Batasuneko herrialdeen artean ekitatezko ahalegina sustatzeko neurriei buruzkoa”.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzea Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, Nafarroako ubidearen Egako adarraren berrastea aprobetxatuta, eta REACT funtsak erabil ditzan hura betearazteko”.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten administrazio-kontratudunei eta aldi baterako lan-kontratudunei dagokienez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten administrazio-kontratudunei eta aldi baterako lan-kontratudunei dagokienez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere eskumenak erabiliz, hiru hilabeteko epean eta Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean negoziatu ondoren, foru lege proiektu

bat aurkez dezan Parlamentuan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua —haren testua abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen— aldatuko duena. Horrekin arautu nahi da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubideaz kontratatutako langileen egoera, eta horrela, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauaren xedapenak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan hartuta, administrazio publiko horietan behin-behinekotasuna hiru urteko epean % 8ra murriztuko da”.

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias